

TESTUA:

HARRESIKO MENDEBALEKO ATEA

Saihetsi egiten zuen ate haren ondotik pasatzea eta, zer esanik ez, atea zeharkatzea. Aurrez aurre eta hiritik kanpo, kondenatuak gurutziltzatzen zituzten muino txikia zegoen eta Nikodemori nazka ematen zion madarikatu haien ondotik pasatzeak. Harro sentitzen zen goitik beherako fariseua izateagatik, legea aztertzeari emana, eta bere portaera zintzoak harrotu egiten zuen.

Jakiturian aurrera egiteko irrikak bultzatuta, guztion ahotan zegoen Galileako maisua bisitatzera joana zen. Gauzez joan zen; jendeak murmurikatu egiten zuen gizon harengatik eta ez zuen inola ere nahi bisitak konplizitate zurrumurruak sorraraztea. Baina solasaldia ez zen joan berak espero bezala: jakitunen arteko iritzi trukaketa baten asmoarekin joan zen, bien jakituria aberastuko zuen aurrerapen baten bila, eta Jesusek aztoratuta utzi zuen bat-batean birjaio beharraz hitz egin zionean. Halere, aurrerantzean, haren joan-etorrien berri izan zuen eta zuhurtzia handiz galdetzen zuen Jesusek esaten edo egiten zuenagatik. Haren zenbait esaldi ikaragarri ederrak iruditzen zitzaizkion. Adibidez, altxor bat aurkitu eta erosi ahal izateko zeukan guztia saldu zuenaren istorioa; barru-barrutik, gaizki esaka ari ziren fariseu lagunen jarrera itsukeria hutsa iruditzen zitzaion. Horregatik egin zion hasieratik uko haren aurka prestatzen ari ziren konspirazioari.

Behin batean, gogoz kontra, haren alde hitz egin behar zuela Sanedrinen iruditu zitzaion. Konturatu zen hori egitean arriskuan jartzen ari zela haren prestigioa, eta horregatik erabili zuen zuhurtasunezko tonu lasaia, baina, hala eta guztiz ere, mesprezu bikoitza merezi izan zuen: entzuten ziotenena, eta bere buruarena, koldarra izateagatik.



Handik aurrera, larrimin bitxia nagusitu zitzaion eta urduritasun handiz bizi izan zituen Pazkorako prestakizunak: otoitz egiten zion Jainkoari Jesus Jerusalemna igo ez zedin, han iragarpen ilunak ari baitzitzaizkion mehatxuka. Baina igo egin zen, gauzez atxilotu zuten, eta epaiketa zital hura hasi zen, bera etxean gelditzen zen bitartean. Bere baitan bi gizon ari ziren lehian: Nikodemo fariseua, itsu-itsuan bere antzinako ideia, ohitura, jakituria eta prestigioari lotua, eta berari ezezaguna egiten zitzaion beste bat, altxor bat aurkitu zuelako barru-barruan den-dena saldu behar zuela esaten ziona, lortu nahi bazuen.

Pazko jaiaren bezperako ilunabarrean, urteko larunbat arranditsuenaren hasiera adierazten zuen sofarrak jo baino lehen, lasaitasun misteriotsu bat nagusitu

zitzaion: etxetik irten, perfumezko ehun libra erosi eta, beldurrik gabe, harresiko mendebaldeko ate aldera jo zuen. Une batez, atalasean gelditu zen, zeharkatu eta gurutze batetik zintzilik zegoen gizon madarikatu harengana hurbiltzen bazen bizitza aurrerantzean ez zela berdina izango jakinaren gainean. Barruan urradura sentitzen zuen, iraganaren umontzian preso zegoen bizimodu berriak atera nahian jardun nahiko balu bezala.

Beste aldean, altxorra gordetzen zuen landa zegoen, eta gurutziltzatuak indar handiz erakartzen zuen, bere erresistentzia baino indar handiagoz. Atalasea zeharkatu eta, poliki-poliki, perfumeak gainean zeramatzala, gurutzeak josita zeuden harrizko muinora hurbildu zen.

Den-dena saltzen ari zen, altxor hura bereganatzeko. Birjaiotzen ari zen.

GALDERAK:

Historia hau nire historia da. Nikodemo kontenplatu eta zenbat kostatu zitzaion Jesusi “men egitea” ikusteak adorez betetzen nau. Lagundu egiten dit neure fede prozesuaren moteltasuna onartzen, eta Gurutziltzatuaren erakarpina nire zalantza eta erresistentzia guztiak baino indartsuagoa izango dela sinesten.

Partekatu egiten dugu gure fedea. Nikodemok bere adina jartzen zuen “berri jaiotzeari” uko egiteko aitzakia gisa; urmaeleko elbarriari ezinezkoa iruditzen zitzaion sendatzea, hogeita hamazortzi urte baitzaramatzen etzanda (Jn 5); eta emakume konkortuak hamazortzi urte zeramatzan horrela (Lk 13,10-14). Ondo etorriko litzaiguke aztertzea ea horrelako aitzakiak erabiltzen ditugun: “nire adinarekin...” “joan zaizkit nire aukerak...” bizitzan, mugitu gabe, estankatuta gelditzeko.

BERRI ONA:

Joan 3, 1-8:



Nikodemo zeritzan gizon batek, fariseuen taldekoa eta juduen buruetakoa bera, gauez Jesusengana etorri eta esan zion: –Maisu, ziur gaude Jainkoak guri irakasteko bidali zaituena, inork ez baititzake egin zuk egiten dituzun mirarizko seinaleak, Jainkoa berekin ez badu. Jesusek erantzun zion: –Bene-benetan diotsut: Ezin du inork Jainkoaren erreinua ikusi, berriro jaiotzen ez bada. Nikodemok galdetu: –Nola jaio daiteke norbait, jadanik zaharra izanik? Sar ote daiteke amaren sabelean eta berriro jaio? Jesusek erantzun: –Bene-benetan diotsut: Ezin izango da inor Jainkoaren erreinuan sartu, uretik eta Espiritutik jaiotzen ez bada. Gizakiagandik berez jaioa gizaki da, Espiritutik jaioa

espiritu. Ez harritu berriro jaio behar duzuela esan dizudalako. Haizeak edonondik jotzen du; entzuten duzu haren hotsa, baina ez dakizu nondik datorren, ez nora doan. Gauza bera gertatzen da Espiritutik jaioarekin.

OTOITZA: ALDATZEN IKASTEKO OTOITZA

Jauna, erakutsiezaguzu
zure aurpegia aurkitu ahal izateko otoitz egiten.
Eraman gaitzazu isiltasunera,
zure ahotsa entzun ahal izateko.
Garbi ezazu gure begirada
zure zeinuak aurkitzeko gai izan gaitezen.
Emaguzu aldatu behar duguna aldatzeko
adorea.
Lagun egiguzu zinez inporta duena bereizten.
Zure aurpegiaren bila jardun nahi dugu,
zure urratsak aurkitu nahi ditugu,
gure albotik joan zareneko ordua ezagutu.
Begirada itzuli behar dugu,
zure begiak aurkitu behar ditugu
eta zure arnasa sentitu, "Aita!" esan ondoren.
Zure begiradan atsedean hartu behar dugu
eta, begirada horretan baitaratuta,
zure betiereko besarkada antzeman.

Emaguzu zure Espiritua,
izan dadin gure gidari,
Harengan oinarrituta berrikusteko gure konbikzioak,
ereduak, keinu eta jarrerak,
xede eta asmoak.

Laguniezaguzu bereizten,
Lagundu Espirituaren arabera ibiltzen,
Ikas dezagun nola aldatu behar dugun.
Eraman gaitzazu, Jauna,
gure kristau bizitzarekin konprometitzera,
legami eta hartzigarri izan dadin
oihuka Erreinuaren etorrera eskatzen duen
munduarentzat.

Emaguzu erabakien ordurako ausardia,
emana izateko ordurako eskuzabaltasuna,
lanaren ordurako iraupena.
Indar ezazu gure fede ibiltaria,
bizkortu gure esperantza,
eragin gure maitasunari,
bizi-proiektuetan gauza dadin.

Zure Erreinoa hurbil dago



eta ez gara ohartzen.
Bizi berria sortu egiten da
justiziaren, solidaritatearen,
askatasunaren eta bakearen
hazitik,
baina ez daukagu kimu horiekin harritzeko
eta haien bizitasunarekin kutsatzeko
gaitasunik.

Lagun egiguzu bihotz berritzen,
Ikas dezagun gure urratsak zure bideari begira jartzen,
aldatzen.

Lagun iezaguzu bereizten,
Erakuts iezaguzu non eta nola izan behar dugun
zure Ebanjelioaren lekuko.

Aita on hori,
lagun iezaguzu aldatzen,
zure Ebanjelioaren lekuko, mezulari
eta egile izan gaitezen.

